



IV. EMAKUMEA PILOTARI EGUNA IRURAN

Etzi emango diote amaiera ikasturteari egun osoko jaiarekin; Txapelketako lehen mailako finala bihar jokatuko dute > 4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-05-27**

VIII. URTEA 2.011. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Edurne Pasaban mendizaleari etzi egingo diote harrera ekitaldia

TOLOSA Atzo iritsi zen Madrilera bere espedizio kideekin batera; «eskerrik asko guztiei» izan ziren bere lehen hitzak

OMENALDIAK Diputazioak omenaldia egingo dio eta Alaba Kuttunaren izendapena ekainaren 19an izango da >



Orio eta Tolosako udaletako ordezkariak, Ezpeleta eta Txinparta elkarteetako kideak eta parrileroak, atzo Zerkausian egindako aurkezpenean. I. TERRADILLOS

ORIOKO ERARA EGINDAKO BISIGUAK DASTATZEKO AUKERA

TOLOSA 'Tolosa Orio estilora' lelopean Bisiguaren Festa izango da asteburu honetan Zerkausian; Euskal Herriko bisigu erretegi «nagusietako» hiru sukaldari izango dira gurean >

Kukuaren jaitsiera ekainaren 2an bada ere, etzitik aurrera jaiak izango da

ANOETA Ekainaren 6an amaituko diren Korputz Jaiak etziko Koadrila Egunarekin hasiko dira >

Gaur hasiko dira LAB, ELA eta CCOOK grafikagintzan deitutako mobilizazioak

EKONOMIA ADEGI-ren «jarrera eta asmoak» salatzeke elkarretaratzea egingo dute bihar Tolosan >

Alurr eta Dantzari Txiki egunak ospatuko dituzte etzi

IBARRA Bigarren urtez bi ekitaldiak egun berean egitea erabaki dute; Dantzari Txiki Eguna goizean izango da eta Alurr Eguna arratsaldean >

«Orio zatitxo bat» dastatzeko aukera

Gastronomia » Txinparta elkarteak antolatuta, Bisiguaren Festa izango da asteburu honetan Zerkausian.

INIGO TERRADILLOS

Gurean ohikoa dena erakutsi eta dastatzeko ekimenak izan ohi ditugu nagusi, baina badira besteenetik ikasi eta probatzeko aukera eskaintzen digutenak ere. Horietako bat da Bisiguaren Festa, eta asteburu honetan izango da, hila- ren 29an eta 30ean, Zerkausia beste behin jatetxe erraldoi bilakatuz.

Pasa den urtean jarri zuten abian Tolosako eta Orioko udalek elkarlanean, Txinparta elkartearen ekimenez. Hala, Tolosan Bisiguaren Festa egin zuten, eta Orion Txuletaren Festa, «biherrietan narbamentzen diren produktuak ezagutaraziz eta nabarmenduz». Ekimenak izandako «harrera ona» ikusita, jarraipena eman nahi izan diote, eta aurten ere elkartrukea burutuko dute.

Tolosa *Oriora estilora* lelopean Bisiguaren Festa asteburu honetan izango da, eta ia zokoa «arrakastaren» bide beretik joango dela dirudi, sarre ragutxi batzuk baino ez direla geratzen azaldu baitute antolatzaileek. Hain zuzen ere, 600 lagun inguruk eman dute da-



Udaletako, Ezpeletako eta Txinpartako ordezkariek eta parrileroak, atzo Zerkausian eginiko aurkezpenean. I.T.

goeneko izena larunbatean nahiz igandean bazkaldu eta afaltzeko. Tolosaldea Tour bulegoaren jarri behar da haren antolatzean erreserba egin ahal izateko.

Hauek guztiek Euskal Herriko bisigu erretegi nagusietako hiruk prestaturiko bisigua dastatu ahalko dute. Joxe Mari (Andoni Manterola), Katxina (Joxe Migel Zendoia) eta Xixario (Luis Mari Uranga). Bisigua parrilan izango da jaki izarra, eta ondorengoek osatuko dute menua: antxoak gatzetan, tomate entsalada hegaluzearekin, zainzuriak, *bixigoxo* postrea eta ardo, ura eta kafea.

Elkarte gastronomikoen lana

Atzo egin zuten ekimenaren aurkezpena, eta han izan ziren bi herrietako udaletako ordezkariek, parrileroak, Ezpeleta eta Txinparta elkarte ordezkariek. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bi herriek, Tolosak eta Oriok, desberdinak izan arren, betidanik izan dutela erlazioa azaldu zuen, eta horrelako ekimenekin harreman hori sustatzea gain, herriari bultzada ematea lortzen dela esan zuen. Bestalde, Bisiguaren Festa Txinparta elkarteak antolatzeari garrantzia eman zion: «Horrek erakusten du elkarte gastronomi-

koek Tolosako bizitza sozialean paper handia jokatzen dutela, eta hori eskertzekoa da».

Jose Maria Etxeberria Txinparta elkarte lehendakariak ere eskerrak eman zizkien ekimena antolatzen lagun duten guztiei. «Oso kontentu gaude bigarren egungo dugulako, harrera ona izaten ari delako, eta geroz eta jende gehiago ari zaigulako laguntzen».

Noemi Ostolaza Orioko lehen alkateordeak, bere aldetik, «ohorea» dela Tolosarekin elkarlanean jarraitzea eta tolosarrek eta ingurukoek «Orio zati bat» dastatzea esan zuen.

» BISIGUAREN FESTA

- **Noiz.** Maiatzaren 29an eta 30ean bazkariak eta 29an afaria.
- **Non.** Zerkausian.
- **Prezioa.** 45 euro.
- **Erreserbak.** Tolosaldea Tour bulegoan: 943 69 74 13 zenbakian edo tour@tolosaldea.net helbidean.

Nerea Letamendiak azoketako zinegotziak, bestalde, Bisiguaren Festaren inguruan izango diren ekitaldiak gogoratu zituen. Izan ere, maiatzaren 29an goizez eta arratsaldez eta 30ean goizez, XXI. Lore eta Landareen Azoka Berezia izango da, eta maiatzaren 29an Tolosa Berdez ekimena hasiko da, «Alde Zaharreko gune griek berde kolorea hartuz». Larunbat honetan, gainera, Tolosaldea Tour bulegoak bisita gidatu bereziak egingo ditu Alde Zaharrean, Topi-en eta Gorrotxategi museoen.

Galiziar Festa

Bestalde, Bisiguaren Festarekin batera Galiziar Festa ere izango da, bihar. Triangulo plazan Galiziar produktu ohikoak, hala nola, olagarroa, muskuilak eta datil freskoak, albariño eta ribeiro ardoak edota postre bereziak, probatu ahal dira 18:00etatik aurrera. Ezpeleta elkarteok bat egin dute ekimenarekin, eta tabernetan olagarroekin egindako pintxoak eskainiko dituzte asteburuan zehar. Halaber, 19:00 edaritegian ardo zurien dastatzea ere egingo dute, bihar, 19:00etatik aurrera.

Gaur iritsiko da Edurne Pasaban Euskal Herrira

Mendia » Tolosan etzi egingo diote harrera, eta ekainaren 19an jasoko du Alaba Kuttunaren izendapena pertsonalki.

ERREDAKZIOA

Ia hiru hilabete iraun duen espedizioa Annapurna eta Shisha Pangma gailurrak eginez bukatutaz eman ostean, atzo goizean iritsi zen Edurne Pasaban Madrilgo Barajasko aireportura, Asier Izagirre eta Alex Txikon espediziokideekin batera. Mendigoizale tolosarrak «oso pozik» dagoela esan zuen, eta esker hitzak izan zituen taldekideentzat: «Zalantzarik gabe proiektuaren gauzarik hobereena taldeko kideak dira, elkarren artean dugun harremanarengatik eta elkarri ematen diogun babesa-

gatik, kide guztiak izan dira funtsezko, sherpak ahaztu gabe». Tolosarrak esan zuenaren arabera, orain ari da pixkanaka konturatzeko lortu berri duenaz.

«Bidean galdu dituen lagunentzat» ere izan zituen hitzak; hain zuzen ere, Tolo Calafat Annapurnan hildako mendizale mallorkarraren heriotzak sortu dituen kritikez mintzatu zen: «Batzuetan oso gaiztoak eta gogorrak jartzen gara, eta jakin gabe iritzia eman nahi izaten dugu». Izagirrek, era berean, 7.000 metrotik gora «gauza arraroak» gertatzen direla, eta horiek han goian zaudenean soilik uler daitezkeela adierazi zuen.

Oh Eun Sun 14 zortzimilakoak igo dituen lehen emakumearen inguruan sorturiko aferaz, «zalantzak» daudela esan zuen, eta itxaron egin beharko dela, «igo dituen ala ez egiaztatzen duten».

Bederatzi urte hauen errepasua eginda, K2 mendia izan dela gogorrena dio Pasabane, «jasandako izozte eta zauriengatik». Gainerakoan, ez du espedizio bat bestearen gainetik nabarmentzen, «guztiak baitute bere berezitasuna».

Omenaldi ugari

Munduko 14 zortzimilakoak gainditzea lortu eta gero, hainbat omenaldi ditu zain Edurne Pasabane. Madrildik gaur ailegatuko da Euskal Herrira, eta bere jaioterrian, Tolosan, etzi egingo diote harrera berezia. Tolosan bertan, ekainaren 19an Alaba Kuttunaren izendapena pertsonalki jasoko du. Bestalde, atzo jakinarazi zuten Kirol Merituaren urrezko domina emango diola Espainiako Gobernuak. Hurrengo erronka Everest igozteaz izango da, baina oxigenoaren laguntzarik gabe.



Pasaban, Txikon, Orvix eta Izagirre, Annapurnan. RTVE AL FILLO DELO IMPOSIBLE

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balizak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ADEGI-ren «jarrera eta asmoek» grafikagintza sektorea zutik jarri dute

Ekonomia » LAB, ELA eta CCOO sindikatuek elkarretaratzea deitu dute Tolosan: bihar, hilak 28, 11:30ean Triangulon.

ASIERIMAZ

Grafikagintzako langileak grebara deitu dituzte LAB, ELA eta CCOO sindikatuek. Mobilizazioak gaur hasiko dira eta bost eguneko egutegia antolatu dute. Tolosan elkarretaratzea bihar, hilaren 28an, egingo dute; Triangulon 11:30ean elkartuko dira.

» GREBA EGUNAK

Grafikagintza sektorea

- **Gaur, hilak 27.** Mobilizazioak kaleetan.
- **Bihar, hilak 28.** 11:30ean Tolosa-Triangulon elkarretaratzea.
- **Ekainak 3.**
- **Ekainak 17.**
- **Ekainak 18.**



Grafikagintza arloko eskualdeko hainbat langile grebara irtengo dira gaur. A. IMAZ

Besteak beste, eskualdean ondorengo enpresei eragingo die greba honek: SAM, Unipapel, Mandriles Cicarsa, Antalis Envelopes Manufacturing, Graficas Zelatun, Manipulados del Araxes, Sobresil, Sobres Izalbe, Borobil, Artes Graficas Laga eta Corensori. Greba deialdia Gipuzkoako En-

presarioen Elkarteak, ADEGI-k, «negoziazioan izaniko jarrera» salatzeko antolatu dute hiru sindikatuek.

ADEGI-ren «jarrera»

Grafikagintzako mahai negoziatzailean LAB, ELA eta CCOO sindikatuek hartu zuten parte. Apiri-

laren 15ean egin zuten bileran ordea, mahaitik altxatzea erabaki zuten: «Gure parte hartzea etetearen arrazoia ADEGIk negoziatzioan izaniko jarrera izan zen. Azken urteetan negoziatzio kolektiboan eman den erasorik handiena gauzatu nahi du proposatu duen plataforma onartezin eta atzerakoia-

rekin: soldaten igoerarik ez, jardunaldia 59 ordu igotzea, antzinatasunaren eta gaixotasun aruntzen kasuko baje osagarriaren desagerpena, 120 orduko malgutasuna, eskubide sindikal batzuen desagerpena eta abar luze bat».

Hiru sindikatuek negoziatzioa mahaia utzi ondoren, sektorean hainbat mobilizazio burutu dituzte. «Oso positiboki» baloratu dituzte ekimen hauek, izan ere, euren esanetan, «ADEGI-ri argi erakutsi dio sektoreak langileen helburua hitzarmen duin baten defentsa dela eta horretarako mobilizatze prest dagoela».

ADEGIk ordea, ez omen du erantzun. LAB, ELA eta CCOOen iritziz, Gipuzkoako Enpresarioen Elkarteak «asmo atzerakoiekin jarratzen du, enpresaburuen interesetara egokitutako hitzarmena nahi du patronalari eta momentuko krisi egoera baliatuz urteetan langileok borrokanen bidez lorturiko guztiarekin bukatu nahi du».

Norabide aldatuta bultzatzeko, langileak kalera deitu dituzte sindikatuek: «Inoiz baino garrantzitsuagoztat jotzen dugu langileen mobilizazioa eta sektoreko langileria guztiari maiatzaren 27 eta 28an eta ekainaren 3, 17 eta 18an burutuko ditugun grebetan parte hartzeko deia egiten diegu».

Eskualdean metalgintza ere «borrokan» dago

A. IMAZ

ELA eta LAB-ek Gipuzkoako metalgintza alorrean deitu duten grebak «babes zabala» jaso duela azaldu dute sindikatuek. Mobilizazioekin bihar hasiko dira, hilaren 28an. Ondoren, ekainaren 4, 10 eta 11n berriro kalera irtengo dira.

Greba deialdi hauekin 265 lantegietako ordezkariek eta lanbatzordeak bat egin dutela ere azaldu dute ELA eta LAB-ek. Horrekin batera, ADEGI-ri aurre eginaz «hitzarmen duin baten aldeko borrokan» aurkitzen direla ere azaldu dute.

CCOO bi egunetan

Espainia mailako sindikatuek ere grebarako deialdia egin du Gipuzkoako metalgintzan. Hori bai, bere aldetik eta bi egunetan bakarrik: bihar eta ekainaren 4ean.

Hilaren 25ean ADEGI-rekin burutu zuten bileran «tonu alda-

keta» nabaritu baldin bazuten ere, greba deialdiekin aurrera jarraituko dutela azaldu dute. Gipuzkoako Enpresarioen Elkarteak «neurri atzerakoia» alde batera uzteko eskatu diote. Lantegiz lantegi horren alde lanean jarraituko dutela ere aipatu dute.

UGTk grebarik ez

Gipuzkoako metalgintzan greba egiteko arrazoirik ez du ikusten UGTk. Hauen esanetan, hitzarmen orokorraz hitz egiteko aukera egon badago. Hori ikusi zuten behintzat ADEGI-rekin hilaren 25ean egin zuten bileran.

Roberto Jaureguiren omenezko Txapelketa Tolosako Usabalen

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, hilaren 29an, etzi, Usabal kiroldegian «Roberto mai-tearen omenezkoa ospatuko da», Igarondo Urpekoak taldeak antolatua. Txapelketa goizez eta arratsaldez izango da, 10:30ean eta 16:30ean hasita.

Igerilariak infantil eta kadete mailakoak izango dira, beraz, 12 eta 15 urte bitartekoek hartuko dute parte eta ur gaineko, ur azpiko eta eskafandrako probak egingo dituzte. Guztira 150 bat gazte etorriko dira Tolosara larunbatean; Euskal Herriatik, Herrialde Katalanetatik, Galiziatik, Andaluziatik eta Aragoitik.

Faboriti nagusiak nafarrak eta valentziarrak dira, «baina gure mutilak oso ondo entrenatzen ari

dira eta emaitza onak espero ditugu» azaldu dute Igarondotik. Gainera, ekainean Bartzelonan jokatuko den Espainiako Txapelketa-rako entrenamendu oso ona izango da hau, han edukiko dituzten aurkariak etxean izango baitituzte.

Euskadiko selekzioarekin parte hartuko duten tolosarrak 27 izango dira. Beraiei zorte ona opa diete Igarondotik, «gogor borrokatu beharko dute eta, dagoen maila ikusita».

«Eskerrik asko»

Igarondo Urpekoak taldeko parte hartzaileak eta antolatzaileak Tolosako Udalaren, Ibarako Udalaren, Kutxaren, Villanueva ardoak-en eta Copytec-en laguntza esker-

tu nahi izan dute. Baita ere, urtero Roberto Jaureguiren omenez egingo den Txapelketa parte hartzen duten boluntarioen laguntza ere.



Tolosaldean Ikastn ekimena ikasturte amaieran aurkitzen da

Tolosa » Ondorengo egunetan 3 ikastaro berri jarriko dituzte martxan; izena emateko aukera zabalik aurkitzen da.

ERREDAKZIOA

Tolosaldean Ikastn, Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako zerbitzua da. Ikasturte amaieran aurkitzen da jadanik eta azken ikastarok jarriko ditu martxan ondorengo egunetan.

Hilaren 31n bi ikastaro hasiko dira: *Informatika hastapena eta internet* eta *Oinarriko aplikazio informatikoak*. Ekainaren 1etik au-

rtera berriz, *Argazki eta bideo muntaia (Movie Maker)* gaia landuko dute.

Honez gain, Elikagaien Manipulazio Txartela ateratzeko ikastaroak jarriko dituzte abian, nahiz eta bi taldeak «bete xamar» aurkitzen diren jadanik. Hala eta guztiz ere, izena eman nahi duenak edo informazioa nahi duenak ondorengo aukerak ditu eskura: Institutura joanaz: 943 65 11 47 edo 615 77 56 78 zenbakietara deituaz edo www.ikastn.com helbidean sartuta.

Azkenik, Ikastn-etik azaldu dutenez, Jesus Torquemadaren tailer «arrakastatsua» amaitzeko hiru saio falta dira.

IV. Emakumea Pilotari Eguna, etzi

Irura » Ikasturte honetan Emakumea Pilotari ekimeneko paleta ikastaroan parte hartu dutenak bilduko dira.

ERREDAKZIO

Etzi, larunbata, IV. Emakumea Pilotari Eguna izango da Iruran. Bertan Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 2004tik martxan duen Emakumea Pilotari proiektuaren baitan, aurtengo ikasturtean emakumeen 20 urteko gorako paleta ikastaroetan aritu diren emakumeak bilduko dira.

Ikastaroetan ibilitako 80-90 lagun inguru izango dira bertaratu-ko direnak, guztira ikasturtean parte hartu dutenen erdiak, gutxi gorabehera. Azken festa honetan, besteak beste, Emakumezkoen Gipuzkoako III. Txapelketa Herrikoia jokatuko dute.

11 bikote lehiatzen

Txapelketa honetan ikastaroa garatu den herri bakoitzak bere ordezkari izango du, 11 bikote



luz ere Iruran izan zen Emakumea Pilotari Eguna eta emakume ugari bildu zen eguna ospatzeko. HITZA

izango baitira lehia bizian arituko direnak: Tolosa, Ibarra, Zizurkil, Oiartzun, Donostia, Azpeitia, Zarautz, Hernani, Azkoitia, Getaria eta Arrasate. Taldeak 2 multzotan banatu dira (A multzoa 6 talderekin eta B multzoa 5 talderekin). Multzo bakoitzean denak denak aurkako ligaxka jokatuko dute eta lehen bi postuetan sailkatuek fina-

lerdietarako txartela poltsikoratu-ko dute. Iaz Getariako bikotea izan zen garaile.

Txapelketaz gain, hala ere, paleta saioa ere izango da. Pilotalekua sei gunetan banatu eta hainbat joko egoera landuko dituzte bertaratu-ko emakumeek. Saio honetan 80 batek parte hartzea aurreikus-ten da. Saioa amaitu ostean Txapelketa herrikoiko azken fasea jokatu-ko da: finalerdiak eta finala.

Bazkaria eta trikitilariak ere ez dira faltako ikasturteko lana merezi bezala ospatzeko, eta ezta oroi-garriak ere.

Emakumea Pilotari Txapelketa finala

Etziko jai eguna baino lehen, bihar bertan, hilak 28, 20:30etik aurrera apirilaren 16an abiarazitako IV. Emakumea Pilotari Txapelketa lehen mailako finala jokatu-ko dute Irurako Ametsa trinketean.

Gutunak

Zorionak eta eskerrik asko!

Aurtengo Txapin Festa antolatzen aritu garenon partetik zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizuegu bertan parte hartu zenuten gazte tolosarguztiori eta aurtengo Txapin Festa ezin hobeto ateratzea posible egin duzuenoi.

Esker bereziak tabernarien Ezpeleta elkarteari, Kikara eta Meskal tabernei, TAK arraunlariei, elkar-teari, Mulanbo perkusio taldeari, Bonberenea txarangari, Humus taldeari, Dj Puntzakari, bazkaria prestatu zuten sukaldari apartei eta Lizardi elkarteari. Aurtengoan ere, hirugarren urtez jarraian, tolosar gazteon izaeraz bete ditugu kaleak nahiz ibaiak. Gauzak hobetze aldera ordea, balorazioa guztion artean egitea gustatuko litzaiguke.

Horregatik, bihar ostirala, maiatzak 28, 19:00etatik aurrera Kultur Etxean egingo dugun bileran parte hartzera deitzen dizuegu.

Txapin Festa. Tolosa.



Aurtengo baltsa jaitziera. A. IMAZ

» EMAKUMEA PILOTARI EGUNEN EGITARUA

■ **10:00-10:30.** Irurako frontoira iritsi eta saiorako prestatu. Partida jokatu behar dutenek beroketa lanak hasiko dituzte.

■ **10:30-12:00.** Emakumezkoen Gipuzkoako III. Txapelketa Herrikoia. Ligaxka. A multzoan Zizurkil, Tolosa, Oiartzun, Donostia, Azpeitia eta Zarautz izango dira eta B multzoan, aldiz, Ibarra, Hernani, Azkoitia, Getaria eta Arrasate.

■ **12:00-12:15.** Beroketa.

■ **12:15-13:15.** Saioa, 6 talde gune-etan ariko dira.

■ **13:30-13:50.** Emakumezkoen Gipuzkoako III. Txapelketa Herrikoia: bi finalerdiak.

■ **13:55.** Finala.

■ **14:10.** Oroigarri eta sari banaketa.

■ **15:00.** Bazkaria eta parranda trikitilarietara.

■ **20:30.** Itzulerako autobusen irteera.



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Leitzako
Iruso jatetxean
2 pertsonentzako
otordua



Iruso Ostatura
Arkiskil, 14 Leitzalarreko errepidea
3880 Leitza
Tel. 948 397035

② Disko sorta

Diska sorta bat
(Travellin' Brothers, Bill Lyerly
eta Mikel Gaztelumendi)



③ Liburu sorta

Liburu sorta bat
(1936ko Gerrako Oroitzapenak,
Itzalean
eta Loiolako Hegiak)



④ Elastikoak

Realaren igoeraren
bi elastiko



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza asteko

Larunbatetik aurrera anoetar guztiak festa giroan murgilduko dira

Anoeta » Asteburuan koadrila eta Dantzari Txiki Eguna ospatuko dituzte. Jaien hasiera ofiziala berriz, ekainaren 2an izango da.

ENERITZ MAIZ

Herriko Korputz jaiak, ate joka dituzte anoetarrek. Ofizialki herriko jaiak ekainaren 2an hasiko badira ere, larunbat eta igande honetan, nahi duenak, festarako aukera izango du.

Larunbatean, Koadrilaren Eguna ospatuko dute eta hasiera, eguerdian jaurtiko duten txupinazoa emango diote. Jarraian, kalejira, bazkaria, koadrilaren arteko jokoak, poteoa, afaria eta erromeria izango dituzte. Hala ere, datorren astean adin guztiarentzako moduko ekitaldiak prestatu dituzte.



130 haur bildu ziren iaz egin zuten haurrentzako bazkarian. Aurten ere mozorrotuta joango dira. I. GARCIA

Dantzari Txiki Eguna eta helduen taldeko ikuskizuna

Igandean, Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute 10:30etik aurrera. Bertan, Anoetako dantzari txikiek gain, Alegia, Ibarra, Irura, Lezo eta Villabonakoak izango dira. Kalejirari ibili ostean, 12:00etan plaza txikian elkartu eta dantza emanaldia egingo dute.

Bestalde, herriko festetan, ekainaren 4ean, herriko dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du Abraham Olano Kirolegian. 22:30ean hasiko den ikuskizun hau, taldearentzat urrats garrantzitsua da. Dantza Taldeetik adierazi dutenez: «urteetan herriko gaztetxoekin landutako bide emankorrak, sari gisa, helduen taldea, ikuskizun bat egiteko moduan da dagoeneko eta prestatu duten emanaldia ekainaren 4ean aurkeztuko dute herritarren aurrean. «1.800 biztanleko herri batean, 76 dantzari osatutako taldea edukitzea ez da egunerokoa» azpimarratu dute taldeak.

» ANOETAKO KORPUTS JAIK 2010

Hilak 29, larunbata Koadrila Eguna

- **12:00etan.** Koadrilaren eguneko txupinazoa eta kalejira.
- **14:00etan.** Koadrilaren bazkaria frontoian.
- **16:30ean.** Koadrilaren arteko jokoak plazan.
- **18:30ean.** Koadrilaren poteoa talde sorpresarekin.
- **21:00etan.** Koadrilaren afaria frontoian.
- **23:30ean.** Erromeria plazan, Bide Batez taldearekin.

Hilak 30, igandea Dantzari Txiki Eguna

- **10:00etan.** Baserritarren azoka plazan, Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutak. Talogileak eta dultzaineroak egongo dira.
- **10:30ean.** Alegia, Ibarra, Irura, Lezo, Lizartza, Villabona eta Anoetako dantza taldeen kalejira.
- **12:00etan.** Dantza taldeen emanaldia plaza txikian.
- **18:30ean.** Oskorri musika taldearen *The Pub Ibiltariaren* emanaldia plazan. Loatzo Musika Eskolak parte hartuko du emanaldian.

Hilak 30, ekainak 5 eta 6

- **Erakusketa.** Udaletxean, herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak eginiko lanak eta festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era ikusgai egongo dira.

Ekainak 2, asteazkena

- **18:55ean.** Herriko Txalapartarietako kukuaren etorrera iragarriko dute plazan.
- **19:00etan.** Herriko Jaietako hasiera emango diote: Txupinazoa, Kukuaren jaitziera kanpai hotsek lagunduta eta ume eta gaztetxoekin danborrada, *Lagunak* txarangarekin.

- **Ondoren.** Loatzo Musika Eskolako trikitilarien kalejira.
- **20:00etan.** Sardina jatea plazan, Kuku Elkarteak antolatutak.
- **23:00etan.** Erromeria, Irune eta Itsaso trikitilarietako plazan.

Ekainak 3, osteguna Korputz Eguna: Umeen eta Mozorro Eguna

- **10:30etik 13:30etara.** Ume eta gaztetxoentzako parkea plazan.
- **13:45ean.** Ume eta gaztetxoekin bazkaria frontoian. (Mozorroturik joateko dei egin dute).
- **16:00etan.** Kidam magoaren emanaldia plazan.
- **17:15ean.** Buruhandi eta erraldioien kalejira izango da herriko trikitilarietako.
- **18:15ean.** Txokolate jatea plazan, Ateaga Elkarteak antolatutak.
- **19:00etan.** Loatzo Musika Eskolako Bandaren lehen kontzertua plazan.
- **21:00etan.** Kostila jatea frontoian, Anoetako Ezker Abertzaleak antolatutak. Txartelak salgai: Haizean, Buztinan, Arkupen, Itzulin eta Laian daude.
- **23:00etan.** Erromeria plazan, Triki Hots taldearekin.

Ekainak 4, ostirala

- **10:00etan.** XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak. Udal Pilota Eskolak antolatutak.
- **11:00etan.** Herriko Jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan, Alkartasuna Elkarteak antolatutak.
- **16:30ean.** Buruhandi eta erraldioien kalejira herriko txistularietako.
- **18:00etan.** Ume eta helduen Play-Back-a, plazan.
- **22:30ean.** Anoetako dantza taldearen ikuskizuna kirolegian, Loatzo Musika Eskolaren lagundurik.
- **00:00etan.** Kontzertua plazan: Ze esatek eta Bizardunak taldeak.

Ekainak 5, larunbata Gazteen eguna

- **11:00etan.** Herri Lasterketa, ume, gazte eta helduentzat. Plazatik abiatuko da.
- **12:30ean.** Buruhandi eta erraldioien kalejira herriko txistularietako.
- **15:30ean.** Mus Txapelketa, Ateaga Elkarteak antolatutak.
- **16:30ean.** Txirindulari Lasterketa, Oriako Txirindulari Eskolak antolatutak (alebina eta infantil mailakoak).

- **17:30ean.** Judoko emanaldia kirolegian.
- **18:00etan.** Gazteen kalejira dantza eginetako.
- **19:00etan.** Sagardo dastatzea, txorizo egosia eta gazta pintxoekin, Kuku Elkarteak antolatutak.
- **21:00etan.** Herri Afaria frontoian.
- **23:30ean.** Gazteen Dantza plazan.
- **Ondoren.** Laket erromeria taldearen plazan.

Ekainak 6, igandea

- **11:00etan.** Gorritiren festibala: zezentxoak eta poneyak plazan.

- **11:00etan.** Paleta Txapelketako Finalak frontoian, Kuku Pilota Elkarteak antolatutak.
- **12:00etan.** Buruhandi eta erraldioien kalejira herriko txistularietako.
- **17:30ean.** Herri Kirolak: Arozetxea ondoko belazean. Alkiza eta Anoeta arteko apustua.
- **Ondoren.** Kupela taldearekin erromeria, 20:30ak arte plazan.
- **23:00etan.** Kupela taldearekin erromeria plazan.
- **00:00etan.** Zeben Suzkoa eta Kukuaren igoera. Ondoren, Kupe-la taldearen erromeriaren jarraipena.

IMH ELGOIBAR ingeniaritza imh

Heziketa Zikloak / Txandakako Ingeniaritza

Ate irekiak: MAIATZAK 29 (11:00etan)

Udaren osteko: IMH, Atean Auzoa 1, Elgoibar. Tfnoa: 943704133 - imh@imh.es - www.imh.es

Eraman soinean...

Helduen elastikoak 15 €

Neskak: MARRIA, ZURIA, BELTZA

Mutilak: BERDEA

LABANIA, BERDEA

NEURMAK: Neskak: S, M, L, XL, XXL
Mutilak: S, M, L, XL, XXL
Haurrek: 3-4, 5-6, 7-8, 9-11

Haurren elastikoak 12 €

mantangorri

Gozatu udaberriaz

Noiz eta nola egin eskaria?

1. TELEFONAZ: 943-30 43 45
2. WEGUNEAN: www.berria.info
3. POSTAZ: harpidetza@berria.info

Maiatzaren 28ra arte aukera izango duzu:

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Bidegoiandik: Mexiko, Tokio, Malaga eta Euskal Herriko zinemetara

Zinema » Bidegoianen eta Euskal Herriko kostaldean grabatutako filma asteburu honetan estreinatuko da zinema aretoetan.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Bidegoianen grabatutako filmak, munduari itzulia eman dio zinemaldiz zinemaldi. *Rabia*, sari ugariekin dator besapean Euskal Herriko zinemetara asteburu honetan.

Guadalajarako (Mexiko) zinemaldian eta Malagakoan (Espainia) film eta argazki onenen sariak irabazi zituen. Tokion eta Toronton berriz epaimahaiaren aipamen berezia izan zuen filmak.

Sebastian Corderok zuzendu zuen filma, Bidegoiango Ana Palazioan grabatu zen 2008 udan. Gogoan izango dute bidegoiandarek herrian sortu zen mugimendua. Hiru hilabetez, palazioa eta inguruak, Hollywoodeko estudioen pareko bihurtu baitziren.

Lantaldean, Hego Ameriketako teknikoak eta bertako aritu ziren lanean.

Aktoreak ere, hangoak eta gertuagokoak. Tartean, Gustavo Sanchez mexikarra *Amores Perros* filmeko aktorea, Xabier Elorriaga, Iciar Bollain eta Concha Velasco.

Etorkinen egoera

Sergio Bizzio idazle argentinarren nobelan oinarritua dagoen filmak, immigrazioa du gai nagusi.

Historiako protagonistak, bi gazte hegoamerikar dira. Sorterria utzi eta Europara, aukera berrien bila etorri dira. Historiaren mamiak, etorkinek bizi duten egoera lantzen du. Paperik gabe daudenek, lan munduan jasan behar dituzten baldintza txarrak eta tratu txarrak salatzen ditu.

Bidegoiango palazioan grabatu zituen zuzendariak dramaren barnealdeko irudiak. Kanpoaldekoak, Lezo, Zarautz eta Donostian grabatuak dira. Pelikulan beraz, Ana Palazioko leihotik begiratzean, Zarauzko kostaldea ikusten du aktoreak.



'Rabia' pelikulako eszenak. HITZA

» SINOPSIS

Gustavo Sanchez aktore mexikarra eta Martina Garcia kolonbiarra dira historiako protagonistak. Beraien lurraldeak utzi eta Europara ko bidea hartzen dute. Gustavok Jose Maria pertsonaiaren papera egiten du, Martina Garciak berriz, Rosarena. Obra batean egiten du lan Jose Mariak. Baldintza oso txarretan. Nagusiarekin izandako eztabaida batean, halaber, nagusia hil egiten du. Gertatutakoaren ondoren, ihes egin eta bere neskalagunak lan egiten duen

etxean ezkatzen da. Martina Garcia aktore kolonbiarra, Rosak, neskame imigrantearen papera egiten du. Bidegoiango palazioan egiten du lan, familia burges baten neskame bezala. Mutil lagunak, bere gordelekitik, ganbaratik, familiak, Rosa neskalaguna nola tratatzen duen ikusten du. Gordelekitik atera ezin duenez, inpotentziaz beteriko uneak bizi ditu. Bere sufrikarioaren adierazteko, Gustavo Garcia aktoreak, 12 kilo galdu behar izan zituen.

Bidegoianen, etxean bezala

2008ko apirila eta ekaina bitartean, egunero, herriko ostatu jaten zuten lan taldekoek. 60 pertsona esertzen ziren bazkaltzeko eta afaltzeko ostatuko jangelan. «Etxekoak bezalakoak» zirela gogoratzen du Irene Esnaola Ostatu-ko sukaldariak. «Gazta tarta jaten zuten oso gustura» azaldu du. «Zuzendariak, Sebastianek, nire amaren baratzako zerbak eta letxugak jartzeko eskatzen zizkidan», gaineratu du.

Janari zerbitzuen jana jatera ohituak dauden aktoreek «Bidegoiango janari naturalarekin gozatu» egin zutela aipatu du Irene Esnaolak. «Filman agertzen den tarta bat txokolatez busti behar izan nuen» gogoratzen du. Tolosatik ekarri zuten tarta zuriak kontraste handiegia egiten zuelako.

Ekudortik Euskal Herrira

Sebastian Cordero ekuatoriarren 3. film luzea da hau. *Ratas, Rateros*, *Rateros* filma du lehenengoa; Ekuadorko zonalde marjinalak delinkuentzia islatzen du. *Crónicas* bigarren lanarekin berriz, Ameriketako Estatu Batuetan ospatzen den Sudance zinema jaialdian kritika oso onak jaso zituen. Azken lanak ere, *Rabiak*, kritika eta sari ugari jaso ditu.

Euskal Herriarekin kontaktua Koldo Zuazuaren bidez egin zuen. Bidegoiango palazioa leku aproposa iruditu zitzaion.

Palazioa txukundu eta zegokion atrezzoak jarri ostean, 2008ko apiriletik ekainera Bidegoian izan zuten bizileku.

» LORTUTAKO SARIAK

- **Zuzendari onenaren saria:** Guadalajarako (Mexiko) eta Malagako (Espainia) zinema jaialdian.
- **Aktore nagusi onenaren saria.** Malagako (Espainia) zinema jaialdian.
- **Argazki onenaren saria.** Guadalajarako (Mexiko) eta Malagako (Espainia) zinema jaialdian.
- **Epaimahaiaren aipamen berezia.** Toronto eta Tokioko zinema jaialdian.

Laburrak

Ipuin musikatuak umeentzat Musika Eskolan

TOLOSA • Botoi Begidun hartzaxoa ipuin musikala eskainiko dute Bostarte eta Iker Ortiz aktoreek gaur 19:00etan. Musika Eskolaren 16. Musikaria astearen barnean sartzen da ekitaldi hau. Haizeko bost musika instrumentuk (flauta, oboea, klarineta, tronpa eta fagota) girotuko dute istorioa. Iker Ortizek berriz, hartzaxoaren ipuina narraituko du. Enid Blytonen ipuinaren moldaketa egingo dute, hainbat musika egileren lanekin nahastuz. Jostailuen munduan murgildutako lagun eta adiskideen historia izango da Musika Eskolan eskainiko duten ikuskizuna.

Bertso saioa eta Sutarri taldearen emanaldia

ALEGIA • San Juan ikastetxeko, 4,5 eta 6 mailako ikasleek, bertso saioa eskainiko dute gaur. Hitzordua Kultur Etxean da 16:30ean. Sutarri dantza taldekoek berriz, ikasturte amaierako emanaldia prestatu dute ostiral iluntzerako. Ekitaldia hamarretan hasiko da eta aurretik lurcha emango dute. Sarrera doan izango da.

Tolosaldeko Ekintzaileen IV. Eguna

TOLOSA • Triangulo plazan, gaur 10:30ean hasik dute Tolosaldeko Ekintzaileen IV. Eguna. *Ekintzailetasunaren mundura murgiltzeko* izeneko tailerra izango da lehen ekitaldia. Ondoren, 13:00ak aldeira, eskualdeko 2009ko ekintzaileei omenaldia egingo zaie eta sariak banatuko dira. 16:30etik 18:30era, bigarren tailerra egingo da: *Ekintzailetasunari buruzko sentsibilizazioa* izeneko. Tailerrez gain, egun guztian, eskualdeko ekintzaileen bideoak proiektatuko dira.

Amezketako festak antolatze bilerak

AMEZKETA • Amezketako San Bartolome jaiak antolatze bilerak, bilerak deialdia egin du festa batzordeak. Gaur, 20:30ean balio anitz dueneko gelan egingo dute bilkura. Festa batzordeak herritar guztiak gonbidatzen ditu bileran parte hartzera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Norgehiagoka erakargarria Amazabalen

LEITZA • Nafarroako Herriarteko Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen atzo arratsaldean Amazabal pilotalekuan. Leitzak eta Uharte-lruñeak ikusizun polita eskainiz hasi zuten lehia. Alebitan kanpokoak nagusitu baldin baziren ere 8-18ko emaitzarekin, infantiletan leitzarrek markagailua iraultzea lortu zuten, 18-5 irabazi ostean. Norgehiagokaren emaitza guztiak biharko zenbakian edo gure webgunean, (www.tolosaldeko-hitza.info) izango dituzue ikusgai. A. IMAZ

Euskal Memoria fundazioak bere proiektua aurkeztuko du bihar, Aurreran

Leitza » Euskal Herriko memoria osatzeko asmoz, ekimen parte-hartzaile bat jarri dute martxan fundaziokoek.

ERREDAKZIOA

Euskal Memoria fundazioak Euskal Herriko memoria osatzeko asmoz, datu eta testigantzak biltzen ari da. Fundazioaren proiektuaren nondik norakoak Aurrera elkartean aurkeztuko dituzte, bihar. Aurkezpena 20:30ean izango da, Kultur Aroaren baitan. Bideo bat jarriko dute, eta fundazioko kide den Joxean Agirre idazleak hainbat xehetasun emango ditu.

XX. mendetik honako historiaren «kontakizun ofiziala» berridatzi nahi du Euskal Memoria fundazioak, eta «errealitate egin nahi du historiaren berreskuratzea». Egitasmo parte-hartzailea izatea daasmoa, hori dela eta, «herriz herri, arloz arlo, salbuespenik eta ilungunerik gabeko» historia agertuko dutela diote.

Fundaziokoek hitzetan, Euskal Herriaren memoria berreskuratzea gaurkotasan osoko eta garrantzia handiko eginkizuna da: «Euskal nazioaren eraikuntzari eta burutzeke dagoen prozesu demokratiko baten berme historikoei estuki lotua. Jendartearen bizi-penak talde-borondate baten zati dira, horregatik ezinbestekoa da ekimen iraunkor eta aktibatzaileekin lapurtutako memoriaren berreskurapenaren partaide izatean».

Alurr eta Dantzari Txiki egunak elkarrekin, larunbatean

ERREDAKZIOA

Ibarrako Alurr dantza taldekoen tzat egun berezia izango da larunbatekoa. Alde batetik, goizean, IV. Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute, eta arratsaldean, II. Alurr Eguna. Joan den urtean erabaki zuten ospakizun hauek egun berean biltzea, eta aurten errepikatu egingo dute jaia.

Goizean Euskal Herriko 250-300 haur inguruk parte hartuko dute Dantzari Txiki Egunean. Ibarra bertatik ez ezik, Berastegi, Altxo, Anoeta, Irura, Bera, Tolosa, Zizurkil eta Ipar Euskal Herriatik etorriko dira gaztetxoak. Plazan elkartuko dira goizean, eta gero, Ibarrako auzoetara joango dira dantzariak. Aurten, lehendabiziko aldiz egingo da hori. Bertan, beraien emanaldiak eskaini ostean, 12:30ak aldera bilduko dira berriro plazan, eta han, fandango eta arinarinak dantzatuko dituzte.

II. Alurr Eguna

Dantzari txikietatik, ez hain txiki-tara igaroko dira arratsaldean. Izan ere, 18:30ean hasiko da bigarren Alurr Eguna. Dantza eskolako ikasle guztiak urtean zehar ikasitakoa jendaurrean aurkeztuko dute. Guztira, 130 gazte ariko dira dantzan taula gainean. Hemeretzi talde daude Alurren baitan, eta horietako bakoitzak, bi dantza eskainiko ditu. Ordubetik inguru iraunango du emanaldiak eta herriko plazan izango da. Hala ere, eguraldi txarra egiten badu, Kiroldegian eskainiko dute ikuskizuna.

Saioaren ostean, gurasoek presatuta, afaritxo bat egingo dute denek. Gainera, antolatzaileek dei egiten diete herritarrei, baserriarrez jantzita azaltzeko egun horretan kalera, «erromeria moduan, gure ohiturei eutsiz». Egunari amaiera emateko, Alurreko musikari saioa izango da.



Bigarrenez, egun berean ospatuko dituzte Alurr eta Dantzari Txiki egunak. A.I.

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Pastilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzte.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

LAGUNTZAILAK: FAGOR

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ, **berria**

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzako gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERANETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean. Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** BostArte haize boskotearen ipuin musikala Udala Musika Eskolako aretoan 19:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Los inocentes* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Proiektzioa

■ **Leitza.** 20:00etan *Ama Dablam* 09 Juan Maritorenaren eskutik Zinema, Kultur Aroan.

Mahai-ingurua

■ **Tolosa.** *Bakerako aukera nola sendotu?* mahai-ingurua Kultur Etxean 19:30ean.

Deialdia

■ **Ibarra.** Festa batzordearen bilera udal batzar aretoan 20:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Iparralde XXI. **09:00.** Muka-muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Lekeitio zine. **10:30.** On ein! **11:00.** Mendialdean bizi. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Ikusmira. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Lekeitio zine. **14:30.** On ein! **15:00.** Mendialdean bizi. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Ikusmira. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** EH Lau Haizetara. **19:00.** Erlo jazz. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gustura Kultur Asteak emandakoarekin

LIZARTZA ■ Bukatu da jada Lizartzako Kultur Astea eta antolatzaileak oso gustura daude, izan ere «jarraipen oso ona izan du herritarren aldetik. Egutero 50 lagun izan dira bertan». Aukera zabalak eskaini dituela diote antolatzaileek, ondorioz «denek izan dute gustuko jardunaren bat». «Hau dena dohainik etorritako hizlari, pailazo, musikari, antzerkigileren

elkartasunari esker aurrera eman ahal izan da eta antolatzaile zein herritarren partetik beraientzat gure eskerrik beroena, berdin baita ere auzo-herrietako eta herriko dantzari eta kirolariei, larunbatean herria kolorez eta irrifarrez jantzi izanagatik, aurrerantzean ere beraiekin kontatzen dugula adierazi nahi diegu», azaldu dute. HITZA

A Agurrak

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P,K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: